**2026KO EKAINAREN 25EAN TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

**ACTA DE LA SESION CELEBRADA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EL 25 DE JUNIO DE 2026**

**MODUA**: presentzialki
**TOKIA**: Batzar Aretoa
**EGUNA**: hogeita bosta
**HILABETEA**: ekaina
**URTEA**: bi mila eta hogeita sei.
**HASIERAKO ORDUA**: arratsaldeko bostak eta erdi
**BATZARRALDIAREN IZAERA**: ohikoa
**DEIALDIA**: lehena
**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA**: Sei (6)

**MEDIO:** Presencial
**LUGAR**: Salón de Plenos
**DIA**: Veinticinco
**MES**: Junio.
**AÑO**: Dos mil veintiséis.
**HORA DE COMIENZO**: diecisiete horas y treinta minutos.
**CARACTER DE LA SESION**: Ordinaria.
**CONVOCATORIA**: Primera
**NUMERO DE MIEMBROS QUE LA COMPONEN**: Seis (6)

**MAHAIBURUA / PRESIDENTA**:
Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV)

**BILDUAK / ASISTENTES**:
Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV)
Mariola Pascual Paredes (EAJ-PNV)
Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu)
Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Wesley Aritz Corsitto Agirre (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE).

**ETORRI GABEA / AUSENTES**:

**IDAZKARIA / SECRETARIA**:
ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

**1.- AURREKO AKTAK**. 2026ko maiatzaren 13ko akta onartzea.

Aho batez onartu da.

**1.- ACTA ANTERIOR**. Aprobación del acta del 13 de mayo de 2026.

Se aprueba por unanimidad.

**2.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK**:

a.- BEASAINGO UDALA ETA EUSKAL FONDOAREN ARTEAN LANKIDETZA

**2. - PROPUESTAS DE LA COMISIÓN DE CIUDADANÍA:**

a.- CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN Y EUSKAL FONDOA. PROPUESTA DE APROBACIÓN.

HITZARMENA. ONARTZEKO PROPOSAMENA. 2026BIBO0009

2026-6-18ko Herritarrak Batzordeko proposamenaren berri eman da:

*"AURREKARIAK*

*I. Euskal Fondoa erakundearen helburua garapen bidean dauden herrialdeekin lankidetzan aritzea da, garapen ekonomiko edo sozialerako edota sentsibilizaziorako egitasmo eta programak sustatuz, finantzatuz edo kudeatuz.*

*Hori guztia kontuan hartuta, Udalbatzak, garapenerako lankidetza ekintzetarako Udal laguntzen banaketa kualifikatuagoa egite aldera, Euskal Fondoaren bazkide egitea erabaki zuen 2014ko abenduaren 18an.*

*II. Euskal Fondoak, 2026rako aurkeztutako finantzaketa-proiektuen berri eman dio Udalari.*

*III. 2026-01-14ko 2026/47 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onartutako 2026-2028 diru-laguntzen plan estrategikoak 1. helburu estrategiko gisa gizarte-ekintza sustatzea aurreikusten du (1.4 diru-laguntza ildoa: Gizarte-lankidetza eta garapenerako laguntza), eta 2026erako Udalaren Aurrekontu Orokorraren transferentzia arrunten eranskinean Euskal Fondoaren aldeko diru-laguntza izenduna aurreikusten da.*

*LEGERI APLIKAGARRIA*

*- 38/2003 Legeak, diru laguntzen lege orokorrak, 22.2.a) artikuluan aurreikusten du toki erakundeen aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako diru laguntzak zuzenki emateko aukera.*

Se da cuenta de la propuesta dela comisión de Ciudadanía:

*"ANTECEDENTES*

*I. La entidad Euskal Fondoa tiene como objetivo contribuir a la cooperación con los países en vías de desarrollo mediante la promoción, financiación, gestión de proyectos y programas de desarrollo económico y social y/o de sensibilización.*

*Teniendo ello en cuenta, el Ayuntamiento Pleno, en aras a un reparto más cualificado de las ayudas municipales a conceder para las acciones de cooperación al desarrollo, acordó con fecha 18 de diciembre de 2014 incorporarse como socio a la referente entidad.*

*II. Euskal Fondoa ha dado traslado al Ayuntamiento de los proyectos objeto de financiación presentados para el año 2026.*

*III. El plan estratégico de subvenciones 2026-2028 aprobado por Resolución de Alcaldía 2026/47 de 14-01-2026, prevé como objetivo estratégico 1 la promoción de la acción social (línea de subvención 1.4: Cooperación social y ayuda al desarrollo), y el anexo de Transferencias corrientes del Presupuesto General del Ayuntamiento para 2026 prevé una subvención nominativa a favor de Euskal Fondoa.*

*LEGISLACIÓN APLICABLE*

*- El artículo 22.2.a) de la Ley 38/2003, general de subvenciones prevé la posibilidad de concesión directa de las subvenciones previstas nominativamente en los presupuestos de las entidades locales.*

- *38/2003 Legeak, diru laguntzen lege orokorrak, 28. artikuluan xedatzen du hitzarmena izango dela toki erakundeen aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako diru laguntzak bideratzeko ohiko tresna.*

- *Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 37. artikuluak berezko eskumen gisa aurreikusten du garapenerako lankidetza alorreko politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legeak, 14. artikuluan, eskumenak ematen dizkie udalei, egoki iritzitako garapenerako lankidetza-programak edo -ekintzak gauzatzeko.*

- *El artículo 28 de la Ley 38/2003, general de subvenciones configura el Convenio como instrumento habitual para canalizar las subvenciones previstas nominativamente en los presupuestos de las entidades locales.*

- *El artículo 37 de La Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi prevé como competencia propia la planificación, ordenación y gestión de las políticas en materias de cooperación al desarrollo y la Ley 1/2007 de 22 de febrero, de Cooperación al Desarrollo del País Vasco en su artículo 14, otorga competencias a los Ayuntamientos para ejecutar los programas o acciones de cooperación al desarrollo que estimen oportunos.*

*Horren ondorioz, Herritarrak Batzordeak Tokiko Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:*

*Lehenik. Euskal Fondoari 100.000€ko dirulaguntza onartzea (2026ko aurrekontuan nominatiboki aurreikusita) honetarako:*

*- Euskal Fondoaren bazkide kuota ordaintzeko (3.146,46€).*
*- Honako proiektuak finantzatzeko, adierazitako zenbatekoetan:*

*-54.000€: P374-26. Habanako Historialariaren Bulegoak garatzen duen Adineko Helduentzako Arreta Integraleko Programa sendotzea, lurraldeko adineko pertsonen zahartze osasuntsuaren eta parte-hartze sozialaren estrategiak sustatuz. 3. Fasea.*
*-21.426,77€: P383-26. Genero-berdintasuna bultzatzea Alta Verapaz udalerriko 7 udalerritan. 2. fasea. (Guatemala).*
*-21.426,77€: P384-26. Handizkako merkatua eraikitzea, emakumeen lidergoarekin. Tactic. 2. fasea. (Guatemala).*

*En consecuencia, la comisión de Ciudadanía somete a la consideración de la Junta de Gobierno Local, la siguiente propuesta de acuerdo:*
*Primero. Conceder a Euskal Fondoa la subvención de 100.000€ (determinada en el presupuesto 2026 nominativamente) para:*
*- Abonar la cuota de socio de Euskal Fondoa (3.146,46€).*
*- Financiar los siguientes proyectos en los importes que se indican:*

*-54.000€: P374-26 Consolidación del Programa de Atención Integral a personas adultas mayores que desarrolla la Oficina del Historiador de La Habana, a partir del fomento de estrategias de envejecimiento saludable y participación social de las personas adultas mayores del territorio. 3ª fase.*

*-21.426,77€: P383-26. Impulso de la equidad de género en 7 municipios de Alta Verapaz. 2ª fase. (Guatemala).*

*-21.426,77€: P384-26. Construcción de mercado de mayoreo con liderazgo de mujeres. Tactic. 2ª fase. (Guatemala).*

*<u>Bigarren</u>. Beasaingo Udala eta Euskal Fondoaren artean sinatzeko hitzarmenaren testua onartzea."*

*<u>Segundo</u>. Aprobar los términos del convenio adjunto a suscribir entre el Ayuntamiento de Beasain y Euskal Fondoa."*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzi hauek azaldu dituzte:

En el turno de intervenciones los asistentes exponen las siguientes opiniones:

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): "Beste urte baten ere komentatu izan dugula uste dut proiektu hauek ondo daudela eta laguntzekoaren aldekoak garela, baina beasaindarrei erakustea egiten dena zer den ez litzateke gaizki egongo. Ez dirua jartzen delako bakarrik, baizik eta iruditzen zaidalako proiektuak ere interesgarriak izan daitezkeela eta guk ikasteko ere balio izango dute. Proiektu denak erakustea ez dut esaten baina bakar batzuk, agian, bai."

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): "Creo que hemos comentado otros años que estos proyectos están bien y somos partidarios de estas ayudas, pero no estaría mal mostrar a los beasaindarras lo que se hace. No sólo porque se pone dinero, sino porque creo que los proyectos también pueden ser interesantes y pueden servir para aprender. No digo que se muestren todos los proyectos pero algunos, quizá sí. "

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Gizarte laguntzaileak komentatu zidan zuek batzordean egindako eskaera. Aztertzekotan geratu ginen urria-azaroan ea nola eman diezaiogun forma. Izan daiteke proiektu bat edo finantzazioaren inguruan gobernuz kanpokoei ematen zaien laguntzei buruzko hitzaldi, bideo eta horrelakoren bat. Ez dakigu herritarren aldetik zein erantzun izango duen baina lekukoa hartu dugu eta zerbait antolatzen saiatuko gara. Zein formatu izango den ezin dizut esan. Badago ere herrikoa den gobernuz kanpoko elkartea laguntzen zaiona. Euskal Fondoa, gizarte larrietarako laguntzak eta beste elkarte batzuk ere badaude Udalarengandik dirua jasotzen dutenak. Horien ere laburpen bat egin genezake. Beno, udaran bueltan saiatuko gara."

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "La asistente social me comentó la petición que hicisteis en la comisión. Quedamos a la espera de analizarla en octubre-noviembre para ver cómo darle forma. Puede ser un proyecto o una charla, vídeo, etc. sobre las ayudas que se conceden a entidades no gubernamentales. Desconocemos la respuesta de la ciudadanía pero hemos tomado el testigo e intentaremos organizar algo. No te puedo decir en qué formato va a ser. También hay una Asociación No Gubernamental del municipio que recibe la ayuda. Euskal Fondoa y otras asociaciones también reciben dinero del Ayuntamiento. También podríamos hacer un resumen de las mismas. Bueno, ya veremos a la vuelta del verano"

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

Tras debatir el asunto suficientemente se somete y se aprueba por unanimidad.

b.- <u>ZERBITZUEN KONTRATAZIOA, BEASAINGO NERABEENTZAKO ZERBITZUAREN KUDEAKETA. PLEGUAK ONARTZEKO PROPOSAMENA ETA DEIALDI PUBLIKOA EGITEA</u>. 2026LIGA0001

b.- <u>CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE LA GESTIÓN DEL SERVICIO PARA ADOLESCENTES DE BEASAIN. PROPUESTA DE APROBACIÓN DE PLIEGOS Y CONVOCATORIA PÚBLICA.</u>

2026-6-18ko Herritarrak Batzordeko proposamenaren berri eman da: Aipatutako

Se da cuenta de la propuesta de la Comisión de Ciudadanía de fecha 18-6-2026 de convocar

lizitazioa egitea deialdia publikoa eginez. Horretarako baldintza administratibo eta teknikoa onartzea proposatu da:

*1.- Prozedura: irekia publizitatearekin. Lizitazio elektronikoa.*
*2.- Izapidetzea: arrunta*
*3.- Bi lizitazio prezio:*

- *Urtekoa, 44.793,00€ + BEZ.*
- *Aleko prezioa: 34,60€/ordua + BEZ*
-

*4.- Egikaritze epea eta luzapenak: Bi urte kontratua sinatu eta hurrengo egunetik aurrera. Bi luzapen. Bakoitza urte batekoa.*

*5.- Kaudimen ekonomiko, finantzarioa:*
*Urteko negozio-bolumena, kontratuaren esparruari dagokiona. Azken hiru urteetako ekitaldi oneneko negozio-bolumena izango da; kontuan hartuta enpresaburuak enpresa noiz sortu duen edo jarduerak noiz hasi dituen eta eskaintza noiz aurkeztu duen. Zenbatekoa: 189.386,28€ gutxienez.*

*6.- Kaudimen teknikoa:*
*Azken 3 urteetan antzeko zerbitzuak eman izanaren zerrenda.*
*Zerbitzu kontratuari atxiki beharreko pertsonala:*
*- Koordinatzailea (arduraduna)*
*- 2 Hezitzaile*
*Titulazio eta agiriak:*
*<u>Koordinatzailea</u>:*
*- Gipuzkoako Esku-hartze Sozialaren IV. Hitzarmen Kolektiboan, 2. taldeari (Esku-hartze Sozialaren arloa) dagokion titulazioa izatea (esku-hartze sozialaren berezko zereginetan ardura duten langileak): Gizarte eta hezkuntza arloko gradua edo diplomatura izatea.*
*- Euskarako C1 gaitasun maila.*
*- Gutxienez 1 urteko esperientzia izan beharko du nerabeekin lan egiten.*
*- 25 orduko formakuntza hezkidetzan.*
*- Adingabeekin lan egiteko sexu-izaerako delituen ziurtagiria.*

públicamente la referida licitación. Para ello se propone la aprobación del condicionado administrativo y técnico:

*1.- Procedimiento: abierto con publicidad. Licitación electrónica.*

*2.- Tramitación: ordinaria.*

*3.- Dos precios de licitación:*

- *Anual: 44.793,00€ + IVA*
- *Precio hora: 34,60 €/hora + IVA*

*4.-Plazo de ejecución y prórrogas: Dos años a contar desde el día siguiente a la firma del contrato. Dos prórrogas. Cada una de ellas de un año.*

*5.- Solvencia económica y financiera:*
*Volumen anual de negocios, en el ámbito al que se refiera el contrato, referido al mejor ejercicio dentro de los 3 últimos disponibles en función de las fechas de constitución o de inicio de actividades del empresario y de presentación de las ofertas por importe igual o superior a 189.386,2 8€.*

*6.- Solvencia técnica:*
*Una relación de los principales servicios o trabajos realizados de los tres últimos años.*
*Personal encargado de prestar el servicio:*
*- Coordinador/a (responsable)*
*- 2 Educadores/as*
*Titulaciones y documentación:*

*<u>Coordinador/a:</u>*
- *Tener la titulación correspondiente al grupo 2 (área de Intervención Social) del IV Convenio Colectivo de Intervención Social de Gipuzkoa (personal con responsabilidad en las tareas propias de la intervención social): Tener grado o diplomatura en el área social y educativa.*
- *Nivel de competencia C1 de euskera.*
- *Deberá tener una experiencia mínima de 1 año trabajando con adolescentes.*
- *25 horas de formación en coeducación.*
- *Certificación de delitos de naturaleza sexual para trabajar con menores.*

*Hezitzaileak:*

*- Gipuzkoako Esku-hartze Sozialaren IV. Hitzarmen Gipuzkoako Esku-hartze Sozialaren IV. Hitzarmen Kolektiboan, 3. taldeari (Esku-hartze Sozialaren arloa) dagokion titulazioa izatea (esku-hartze sozialaren berezko zereginetan ardura duten langileak): Gizarte arloko diplomatura edo gradua. Gizarte integrazio goi mailako teknikaria edota animazio soziokulturalean goi mailako teknikaria*

*- Euskara C-1 maila*

*- 2 hezitzaileetatik batek, gutxienez, esperientzia izan beharko du nerabeekin lan egiten.*

*- 10 orduko formakuntza hezkidetzan.*

*- Adingabeekin lan egiteko sexu-izaerako delituen ziurtagiria.*

*Onartuko da idatzizko konpromisoa aipatutako baldintzak kontratatutako pertsonalak beteko dituela kontratua sinatu aurretik, adjudikaziodun suertatu ezkero.*

*Kontratista enpresa berria denean (hau da, bost urte baino gutxiagokoa), aurreko b) eta c) letran aipatzen diren bitarteko baten edo batzuen bidez egiaztatuko da kaudimen teknikoa, baina ez da inola ere aplikagarria izango artikulu horren a) letran zerbitzu kopuru jakin bat egin izanari buruz ezarrita dagoena.*

*7.- Aurkezteko epea eta lekua: 15 egunekoa kontratazioRako plataforman iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita . Lizitazio elektronikoa.*

*8.- Adjudikazio irizpideak:*

*Formula automatikoen bidez baloratzen ez diren irizpideak (50 puntu)*

*Memoria teknikoa: 50 puntu arte.*

*1. Zerbitzuaren proiektu teknikoa: (gehienez 40 puntu).*

*Erakunde lizitatzaileek garatu nahi duten lan planaren proiektu teknikoa aurkeztu beharko dute, jarraian zehazten diren atal guztiak jasoko dituena:*

*Educadores/as:*

- *Tener la titulación correspondiente al grupo 3 (área de Intervención Social) del IV Convenio Colectivo de Intervención Social de Gipuzkoa (personal con responsabilidad en las tareas propias de la intervención social): Diplomatura o grado en el área social. Técnico/a superior en integración social o técnico/a superior en animación sociocultural.*
- *Euskera nivel C1.*
- *Al menos uno/a de los/as 2 educadores/as deberá tener experiencia trabajando con adolescentes.*
- *10 horas de formación en coeducación.*
- *Certificación de delitos de naturaleza sexual para trabajar con menores.*

*Se aceptará el compromiso por escrito de disponer de dicho personal (títulos incluidos) antes de la firma del contrato, en caso de resultar adjudicatario.*

*Cuando el contratista sea una empresa de nueva creación, entendiendo por tal aquella que tenga una antigüedad inferior a cinco años, su solvencia técnica se acreditará por uno o varios de los medios a que se refieren la letra b) y c) sin que en ningún caso sea aplicable lo establecido en la letra a), relativo a la ejecución de un número determinado de servicios.*

*7.- Plazo y lugar para la presentación de proposiciones: 15 días naturales contados desde el día siguiente al de la publicación del anuncio de licitación del contrato en el perfil del contratante.*

*8.- Criterios de adjudicación:*

*Criterios no evaluables mediante fórmulas automáticas (50 puntos)*

*Memoria técnica: hasta 50 puntos.*

1. *Proyecto técnico del servicio: (máximo 40 puntos).*

*Las entidades licitadoras deberán presentar el proyecto técnico del plan de trabajo que desean desarrollar, el cual recogerá todos los apartados que se detallan a continuación:*

*1.1. Zerbitzuaren esparru teorikoa (gehienez 8 puntu):*

*1.1.1. Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistemarekiko ezagutza: 2 puntu, gehienez.*

*1.1.2. Marko teorikoa, helburu zehatzak eta hori lortzeko proposatzen diren ekimen zehatzak era egokian erlazionatzea: 3 puntu, gehienez.*

*1.1.3. Zerbitzuko hartzaileen adin tarte ezberdinei begirako planteamendu zehatzak egitea eta genero ikuspegia txertatzea, 3 puntu gehienez.*

*1.2. Lan-metodologia (20 puntu, gehienez).*

*1.2.1. Zerbitzuaren oinarriak, helburuak eta lan-plana: 4 puntu gehienez.*

*1.2.2. Zuzeneko arretan arlo bakoitzaren jarduerak nola landuko diren zehaztea (aisia hezitzailea, parte hartzeko bideak, sorkuntzarako bideak, informazioa, orientazioa eta bide-laguntza): 6 puntu, gehienez.*

*1.2.3. Zerbitzua ingurune seguru eta babeslea izateko proposamena: 2 puntu gehienez.*

*1.2.4. Zeharkako lerroak nola jorratuko diren azaltzea (PPT 3.3): 4 puntu gehienez.*

*1.2.5. Zerbitzuaren ebaluazioa eta komunikazio plana nola egingo den: 4 puntu gehienez.*

*1.3. Proiektua herriaren errealitatera egokitzea (gehienez 15 puntu).*

*1.3.1. Zerbitzurako esanguratsuak izan daitezkeen baliabide eta elkarteak ezagutzea eta haiekiko elkarlana eta koordinazioa zehaztea: 5 puntu, gehienez.*

*1.3.2. Herri mailako ekimenetan esku hartzeko proposamen zehatzak: 5 puntu, gehienez.*

*1.3.3. Nerabeak zerbitzura erakartzeko proposatzen diren estrategia zehatzak: 5 puntu, gehienez.*

*2. Langileenganako egokitutako neurriak (gehienez 7 puntu)*

***1.1.*** *Marco teórico del servicio (máximo 8 puntos).*

*1.1.1. Conocimiento del Sistema de Promoción Infantil y Juvenil de Gipuzkoa: máximo 2 puntos.*

*1.1.2. Relacionar de forma adecuada el marco teórico, los objetivos específicos y las iniciativas concretas que se proponen para conseguirlo: máximo 3 puntos.*

*1.1.3. Realizar planteamientos específicos dirigidos a las diferentes franjas de edad de los destinatarios del servicio e incorporar la perspectiva de género: máximo 3 puntos.*

***1.2.*** *Metodología de trabajo (máximo 20 puntos).*

*1.2.1. Bases del servicio y plan de trabajo: máximo 2 puntos*

*1.2.2. Detallar cómo se trabajará cada área de actividad en la atención directa (ocio educativo, vías de participación, vías para la creación, información, orientación y acompañamiento): máximo 6 puntos.*

*1.2.3. Propuesta para que el servicio sea un entorno seguro y protector: 2 puntos.*

*1.2.4. Explicar cómo se abordarán las líneas transversales ( PPT 3.3): máximo 4 puntos.*

*1.2.5. Explicar cómo se realizará la evaluación y la comunicación del servicio: máximo 2 puntos.*

***1.3.*** *Adaptación del proyecto a la realidad del municipio (máximo 15 puntos).*

*1.3.1. Demostrar el conocimiento de los recursos y asociaciones que puedan ser significativos para el servicio y detallar la colaboración y coordinación con los mismos: máximo 5 puntos.*

*1.3.2. Propuestas concretas de intervención en iniciativas a nivel municipal: máximo 5 puntos.*

*1.3.3. Estrategias concretas propuestas para atraer a los adolescentes al servicio: máximo 5 puntos.*

*2. Medidas adaptadas hacia el personal (máximo 7 puntos)*

*2.1. Langile emakume eta gizonen artean berdintasuna bultzatzeko neurriak (Berdintasun planak,…): gehienez 3 puntu.*
*2.2. Generoari erreparatuta, lan arriskuak eta lan osasuna prebenitzeko neurriak: gehienez 2 puntu.*
*2.3. Lanean sexu-jazarpena eta sexu arrazoiengatik jazarpena prebenitzeko neurriak: gehienez 2 puntu.*

*Egindako planteamenduan eskaintzen den zerbitzuaren egokitasuna eta koherentzia baloratuko dira, beti ere, herriko nerabeen errealitatearen kontuan izanik.*

*Proposamenaren edukia gehienez ere 30 orrialdekoa izango da, Arial 11 letran egingo da. Aurkibidea eta eranskinak barne, eta ez da baloratuko orrialde kopuru horretatik gorako informaziorik.*

*2017 SPKLko 146.3 artikuluaren arabera, hurrengo fasera pasatzeko gutxienez %50eko puntuazioa lortu beharko da.*

*Formula automatikoen bidez puntuatzeko irizpideak. (50 puntu)*

*1.- Urteko proposamen ekonomikoa: 40 puntu.*

*Balorazioa honela egingo da:*
*Preziorik merkeenari puntuaziorik handiena emango zaio, eta gainerakoen puntuazioa honela kalkulatuko da: prezio baxuenaren eta baloratzen den lizitatzailearen eskaintzaren arteko zatidura aplikagarri diren puntu guztien kopuruarekin biderkatzeko formularen emaitza.*
*Pl = (Ob/Ol)* 40*
*Pl: Lizitatzailearen puntuazioa*
*Ob: Eskaintzarik baxuena*
*Ol: Eskaintza lizitatzailea*

*Eskaintza anormalki baxuak: Halakotzat hartuko dira onartutako eskaintzen batez bestekoa baino ehuneko 15 puntu baxuagoak diren bajak dituztenak.*

**2.1.** *Medidas para impulsar la igualdad entre mujeres y hombres trabajadores (Planes de igualdad...): máximo 3 puntos.*
**2.2.** *Medidas para la prevención de riesgos laborales y salud laboral prestando atención al género: máximo 2 puntos.*
**2.3.** *Medidas de prevención del acoso sexual y acoso por razón de sexo en el trabajo: máximo 2 puntos.*

*En el planteamiento realizado se valorará la idoneidad y coherencia del servicio ofertado, teniendo siempre en cuenta la realidad de los adolescentes del municipio.*

*El contenido de la propuesta tendrá una extensión máxima de 30 páginas y se realizará en letra Arial 11. Incluye el índice y los anexos, y no se valorará la información que exceda de dicho número de páginas.*

*De acuerdo con el artículo 146.3 de la LCSP 2017, para pasar a la siguiente fase se deberá obtener una puntuación mínima del 50%.*

*Criterio 2 evaluables mediante fórmulas automáticas (50 puntos)*

*1.- Oferta económica anual: 40 puntos.*

*La valoración se efectuará de la siguiente manera:*

*Se otorgará la máxima puntuación al precio más económico y la puntuación del resto se desprende del resultado de la fórmula de multiplicar el resultado del cociente entre el precio más bajo y la oferta del licitador que se valora por el número total de puntos aplicables*

*Pl = (Ob/Ol)*40*

*Pl: Puntuación del licitador*

*Ob:Oferta más baja*

*Ol: Oferta licitador*

*Ofertas anormalmente bajas: Se considerarán como tales, aquellas cuya baja sea 15 puntos porcentuales inferiores a la media de las ofertas admitidas.*

*2.-Aleko prezioa zerbitzu berezietarako (orduko): 10 puntu.*

*Balorazioa honela egingo da:*
*Pl = (Ob/Ol)* 10*
*Pl: Lizitatzailearen puntuazioa*
*Ob: Eskaintzarik baxuena*
*Ol: Eskaintza lizitatzailea*

*9.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.*
*10.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzaileek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.*
*11.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak:*
*- Emakumeen kontratazioa sustatzea; lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egitea.*
*- Langabezia borrokatzea, batez ere gazteena, emakumeena eta iraupen luzekoa.*
*- Lantokian prestakuntza eman dadin sustatzea.*
*- Kontratuak bete beharko du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea."*

*2.- Precio por unidad del servicio especial (por horas): 10 puntos*
*La valoración se efectuará de la siguiente manera:*
*Pl = (Ob/Ol)*10*
*Pl: Puntuación del licitador*
*Ob:Oferta más baja*
*Ol: Oferta licitador*

*9.- Lugar, día y hora para la apertura de proposiciones: la apertura de plicas se realizará en el lugar, día y hora que publique en el perfil del contratante.*
*10.- Documentación a presentar: los licitadores deberán presentar la documentación que se indique en los pliegos de condiciones administrativas.*
*11.- Condiciones especiales de ejecución:*
*- Favorecer la mayor participación de la mujer en el mercado laboral y la conciliación del trabajo y la vida familiar.*
*- Combatir el paro, en particular el juvenil, el que afecta a las mujeres y el de larga duración.*
*- Favorecer la formación en el lugar de trabajo.*
*- El contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística"*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzi hauek azaldu dituzte:

En el turno de intervenciones los asistentes exponen las siguientes opiniones:

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): "Guk gure aldetik esan pozten garela gaztelekua martxan jartzea. Urteak daramagu eskatzen eta badirudi errealitate bihurtuko dela, baina aldi berean esan dugu ez zaigula gustatu prozesu hau nola eraman den. Teilatutik hasitako etxea bezala irudikatu dugu. Beti esan dugu gazteri sail indartsu batek lideratutako prozesua izan behar dela, beharrak identifikatuta eta lokalaren egokitasuna aztertuta. Orduen eta espazioaren erabilera konpartitze aldetik ez dakit oso garbi dagoen. Guk behintzat ez dugu. Pozik gaude baina zalantzak ditugu. Beraz, abstenitu egingo gara."

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): "Nosotros por nuestra parte nos alegramos de la puesta en marcha del gazteleku. Llevamos años pidiendo y parece que se va a hacer realidad, pero al mismo tiempo hemos dicho que no nos ha gustado cómo se ha llevado este proceso. Lo hemos representado como una casa iniciada desde el tejado. Siempre hemos dicho que la juventud debe ser un proceso liderado por un departamento fuerte, identificando necesidades y analizando la idoneidad del local. No sé si el uso compartido de las horas y el espacio está muy claro. Por lo menos nosotros no lo tenemos. Estamos contentos pero tenemos dudas. Así que nos abstendremos. "

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Ikusiko da. Nik uste dut poztekoa dela Beasainek aisialdirako zerbitzua izatea. Egindako lanketa dela eta nik uste dut beharrak asetzeko lokala izango dela. Gure ustez oso ondo kokatuta dagoen lokala da, aurrean plazatxo bat du eta erdi-gunean dago. Lokala beste batzuekin, eta bakoitzaren erabileraren arabera partekatzea egokia ikusten dugu. Gaztelu zerbitzua aste bukaeran martxan hasten bada, astean zehar partekatu daiteke. Bateragarria den erabilera ematearekin ere, ados egon beharko ginateke, baliabideak optimizatzea delako. Ikuskizun dago. Ea gure gaztetxoengan harrera ona izaten duen. Duela urte batzuk ere gaztelekua izan genuen baina bilakaera ez zen guztiz ona izan. Orain beste apustu berri bat egiten dugu eta ea emaitza positiboak izaten ditugun eta gutxitik gora joaten garen, nahiz eta horrek beste erabaki batzuk hartzea eskatu. Momentuan, espazioa partekatzea ezinbestekoa dela esango nuke. Bai hemen eta bai beste edozein espazioetan."

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Se verá. Yo creo que deberíamos de alegrarnos de que Beasain tenga un servicio de ocio. En cuanto al trabajo realizado, yo creo que será un local para satisfacer las necesidades. Consideramos que se trata de un local muy bien ubicado, con una plazuela delante y situado en el centro. Vemos adecuado compartir el local con otros en función de su uso. Si el servicio Gaztelu entra en funcionamiento a finales de semana, se puede compartir a lo largo de la semana. También deberíamos estar de acuerdo en dar un uso compatible, porque es optimizar los recursos. Ya veremos. A ver si nuestros adolescentes le hacen una buena acogida. Hace años también tuvimos un gazteleku, pero la evolución no fue del todo buena. Ahora hacemos una nueva apuesta y a ver si obtenemos resultados positivos y vamos de menos a más, aunque eso exija tomar otras decisiones. En el momento, diría que compartir el espacio es imprescindible. Tanto aquí como en cualquier otro espacio. "

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Decir que nosotros en un principio también teníamos nuestras dudas. Sobre todo en cuanto a la organización y el compartir local teniendo en cuenta las necesidades de Urbi-Berri, pero visto lo visto y después de reflexionar, vemos que el compartir local es algo positivo tanto si es en igual horario o diferente en aras a un lazo de unión entre diferentes generaciones de beasaindarras. Estamos de acuerdo."

Aritz Corsitto Agirre jaunak (Elkarrekin Podemos): "guri iruditzen zaigu ezer ez eduki edo zerbait eduki positiboa dela. Ikasten joango gara zein onurak eta zein gabezia dituen eta horren arabera, eraikitzen jarraituko dugu. Gure jarrera aldekoa da."

